

FITZ ROY ETA CERRO TORRE INGURATUZ

Inguruotan ezohikoa den eguraldi bikainaren laguntzarekin, itzuli osoa eman diogu tamaina ikaragarritzko orratzez josita dagoen mendialdeari. Horretarako, munduko hirugarren izotz-masarik handienean sartu behar izan dugu, eta abentura-puntua eman dio horrek ibilaldiari. Jarduera biribila izan da, zentzu guztietan.


Txile atzean utzi ondoren, Argentinan sartu gara Maria eta biok. Amaitzeaz gaude azken hilabeteen bizikletaz zeharkatu dugun Bide Australa eta, ibilbidearen azken kilometroak egin ostean, arraro sentitu gara Chaltenera sartu garenean: zibilizazio eta jendez inguraturik gaude aspaldiko partez. Zorionez, lagunak dauzkagu jendetza horren artean: Marcus eta Cerin eskalatzaile australiarrak. Haien etxean hartuko dugu atseden egun batzuetan.

Inguruneotan mendigune berezi bat altxatzen da, ikaragarritzko paretak dauzkaten ton-torrez osatutakoa. Eskalatzaile ugari erakartzen dituzte orratz horiek, baita paisaia eder hori gertutik ezagutu nahi duten mendizale franko ere -oso ongi prestatuta dago horretarako-.

Klimak, baina, ez die askorik laguntzen oinez ibiltzera datozenei; are gutxiago horman zintzilik dabilzane: Patagonia hegoaldea aipatzea, ezinbestean, haizea aipatzea da; orduko ehun kilometroko ufadak eguneroko kontua dira hemen, eta hortik gora areagotu ohi dira ekaitza sartzen bada. Haize horrek abiada bizian ekartzen ditu urez kargatutako lainoak, mendikatearen atzealdean dagoen Ozeano Baretik. Hemen, minutu gutxiko kontua da giro eder eguzkitsutik elur-ekaitz bortitzerako aldaketa.

Orduko ehun kilometroko ufadak eguneroko kontua dira hemen

Herriaren gain-gauean daude mendiak. Marcusen etxeko leihotik, esaterako, Fitz Royko paretak ikusten da. Etxaldea eskala-



tzailez josita dago: estatubatuarra, austrialiarrak, austriarrak, suitzarrak... Eskuak poltsikoan dituztela ezagutu ditugu, esperoan. Baina, arratsaldean, eguraldi-iragarpena zabaldu denean, aztoratu egin da herria: giro ona omen dator hiru egunerako. Prestaketetan hasi da mundu guztia, baita gu ere: menditarretara hurbilduko gara, hiru eguneko ibilaldia egitera.

1. IBILALDIA ORRATZEN EKIALDETIK, TREKKING TURISTIKOA

Los Glaciares Parke Nazionaleko lurretatik egingo dugu txangoa, mendien ekialdeko aurpegiatara hurbilduko gara. Chalten herriaren barrutian zabaltzen den eremu hori oinezkoentzako egoki prestatuta dago: ongi ba-

TESTU ETA ARGAZKIAK



Unai Altuna Etxeberria
(Lasarte-Oria, 1981)

Txikitatik du gustuko mendia, baita bidaiatzea ere. Mendirako aitzakian, Euskal Herriko nahiz mundu osoko hainbat herri, txoko eta pertsona ezagutu ditu; bizikletaz askotan, baina baita oinez, eskalatu edota eskien gainean ere. Unai eta Maria Mungia Del Pozo bidaidea, bizikletak beharrezko guztiarekin kargatu eta Hego Amerikara abiatu ziren 2015eko irailean. Manto-manto, kontinentea ezagutzen ari dira orduetik. Hego Amerikako bizipenak blog batean biltzen ari dira: www.suarenbila.wordpress.com



lizatutako bideak eta komunekin hornituriko oinarrizko kanpamentuak (doakoak). Iturririk? Ez da beharrezkoa: edangarria da erreka ura lurralde basati horietan.

FITZ ROY ETA POINCENOT

Iragarpenak ez du hutsik egin, eta etxeko leihotik ikusi ditugu gailur nagusiak, gosaldutako bitartean. Chaltenetik (450 m) Fitz Royko ton-torrera (3405 m), begirada gorantz zuzendu beharra dago. Martxan jarri garenean, begirada nahikoa ez eta lepoa ere okertzen hasi behar izan dugu orratzetara begiratzeko: zenbat eta gehiago gerturatu, orduan eta ikusgarriagoa bihurtzen ari da paisaia. Etxetik abiatuta, hiru orduko ibilaldi lasaiaren ostean iritsi gara lehen kanpalekura. Goiz afalduta oheratu gara: bihar ramunean, ordu txikitik joko du iratzargailuak.

Goizeko laurak. Argitzerako, bostehun metro altuago dagoen Laguna de los Tres aintzirara iritsi nahi dugu, egunsentia bertatik ikusteko. Baina ez da nahikoa izan; ia 50°ko hego-latitudean gaude: egunak luzeak eta gauak motzak dira urte-sasoiotan. Gorantz goazela hasi du zerua urdintzen, eta, laku-ertzera iritsi garenerako, gainak berotzen ari da jada eguzkia.

Ikaragarriak dira orratzak: bi mila metro-rainoko paretak. Tokitan gelditu zaizkit orain arteko erreferentziak: Rigloseko hirurehun metroak, Picu Urrielluko ia seiheun metroak edota Vignemale iparreko mila metroko horma. Pris-

Stephanekin, Marconi pasabidea gainditu berritan



matikoekin begira jarri gara eta, zailtasunez, puntu txiki batzuk begitandu ditugu: eskalaztzaileak dira. Poincenot orratzean bi sokada topatu ditugu, paretak gurutzatzen duen izotzezko diagonalean zintzilak. Marcusek aipatu digunez, gure etxeko Stephan eta Timo austriarrek osatzen dute bietako bat. Fitz Royren ezkerreko lepoan ere aurkitu ditugu beste puntutxo batzuk. Ezezkoa egin du Marcusek buruarekin: «Berandu dabilta». Goizeko seiak dira eta, azken txanpari ekin dioten arren, zortziehun metroko eskalada geratzen zaie oraindik.

Ikaragarriak dira orratzak: bi mila metro-rainoko paretak

Gosari oparoa egin dugu aintziran, kafea eta guzti igota. Kafeinak irudimena kitzikatuta-edo, Poincenot pertsonifikatu dut: Poincenot gizajoa! Retegi Ilaren garaian Galarza IIIa edota Indurainen garaian Chiappucci bezala, bigarren izatera kondenatuta dago. Dauzkan ezaugarriekin, fama eta ospea bermaturik



Izotz-zelaiko kanpalekua

izango lituzke munduko beste edozein txokotan altxatuko balitz. Alboko munstro lodiaren itzalean, aldiz, txikia eta ahula dirudi, geldi-geldi, mugitu ezinik.

CERRO TORRE

Ordu pare batez ikusmirari so egon ondoren, behera jaitsi, kanpamentua desmuntatu eta hurrengo bailarara abiatu gara. Atzean utzi berri dugun zirkuan Fitz Roy da nagusia; baina, ez oso urruti, konpetentzia dauka erraldioiak: Cerro Torre mitikoa. Altueraz baxuagoa den arren (3133 m), estu bezain zorrotza den orratz hori "Eskalatzeko munduko mendirik zailena" izendatu izan du hainbatek. Izan ere, alde guztietatik gutxienez zortziehun metroko paretez gotortutako tontorra izateaz gain, inongo babesik gabe altxatzen da mendebaldeko izotz-lautadatik eta, ondorioz, gogor josten du muturreko klimak.

Lau bat ordutan egin dugu Cerro Torrera inguratzen den bidea, eta laino artean ezkutatuta egon da gailurra gerturatzen joan ga-

ren bitartean. Hala ere, zorionez, arratsaldean argitu egin da zerua, eta kanpalekutik hamar minutura dagoen lakura igo gara, ilunabarra gozatzerara.

"Eskalatzeko munduko mendirik zailena" izendatu izan du hainbatek

Biharamunean, berriro ere goizean goiz altxa eta aintzirako talaian eserita itxaron diogu eguzkiari. Ekialdeko aurpegiak parean ditugunez, ederra izan da egunsentiaren ikuskizuna; Marcusen hitzetan, bertan sekula begietsi duen ederrena. Inguruotan zortzi urte daromatzen baten ahotan hori entzuteak oroitarazi digu normalean bestelakoa dela hemen giroa.

Prismatikoak hartuta, orratzak aztertzen ibili gara. Gaurkoan, eskalatzaileak beharrean, paretan zintzilik dagoen konpresore bat bilatu nahi dugu: 1970ean igo zuen bertara Maestriren taldeak, eta han dago oraindik. Makinaren laguntzaz, burilez josi zuten hormako zatirik

gaitzena. Ika-mika eragin zuen eskalada horrek, baina orratzeko igoera normala bihurtu zen segituan; asko erraztu zen "munduko mendirik zailena". Hala ere, azken urteotan denon ahotara itzuli da Compressor bidea: 2012an, aipatutako burilak kendu zituzten eskalatzaile batzuek, oso ekintza eztabaidatua. Jada ez da Compressor biderik, eta mendebalde basatira igaro da tontorra zapaltzeko ibilbide normala. Gaztelu ia erasozina da berriz Cerro Torre.

Itzuliaren ostean, Urtezahar egunean bildu gara Chaltenera. Afari ederra prestatu dugure etxetxoan, eta hogeit bat lagun elkartu gara. Urte berriaz gain, denok dugu zer ospaturik: eskalada ederrak batzuek eta mendi-buelta polita besteok.

Hurrengo egunetan, eguraldi txarra izan da nagusi. Urtarrilaren lauan, ordea, aztortuta esnatu da berriro ere herria: sei-zazpi eguneko leihoa aurreikusten da oraingoan. Prestaketan hasi da mundu guztia, horrelako abaguneak bi-hiru urtean behin bakarrik azaltzen omen dira. Sekulako zortzarekin gabiltzala dirudi.



Cerro Torreren ekialdeko aurpegia, egunsentian

Jakina, guk ere aprobetxatuko dugu aukera: sei egunetan emango diogu mendigune osoari itzulia, eta mendebaldeko aurpegiak ezagutuko ditugu. Horretarako, hegoaldeko izotz-lautada handian sartu beharko dugu, Campo de Hielo Patagónico Sur deiturikoan. Munduko hirugarren izotz-plaka handiena da, Antartika eta Groenlandiaren atzetik.

Azkar eta oso bortitz sartzten dira ekaitzak izotz-zelaian

Bira horrek zailtasun apur bat dauka, ez da edozeinek egiteko modukoa: glaziarretan ibiliko gara oinez ia ibilbide osoan zehar -bere morrena eta arrakala guztiekin-; horretaz gain, eskalada-pausu erraz baina delikatu batzuk gainditu beharko ditugu; horren denaren gaintetik, ordea, klima da hemen arrisku-faktore garrantzitsua: azkar eta oso bortitz sartzten dira ekaitzak izotz-zelaian. Ez dago, gainera, babeserako inongo aterperik. Aitzitik, konfiantzazko gida daukagu guk: Marcus. Bere ardura eta gidaritzapean ibili gara (ikus segurtasun-oharra).

2. IBILALDIA IZOTZ ZELAITIK, ORRATZEN MENDEBALDEA

Sei egunerako janariarekin kargatuta abiatu gara, goizean goiz, Eléctrico ibaian gora. Izen bereko aintzira inguratu eta Marconi lakuaren ertzean kanpatu dugu arratsaldean. Afaria prestatzen ari garela, sentitu dugu zein azkar alda daitekeen giroa hemen: eguzkitan goxo egotetik haize gogorra jasatera igaro gara minutu gutxitan. Afaldu eta kanpinean babestu gara.



Goizerako apaldu dira, zorionez, hai-ze-ufadak. Hobe zailtasunik ez gehitzea gaurko etapari, konplikatua dator-eta. Goizean goiz, Marconi lakua atzean utzi eta izen bereko glaziarrean sartu gara. Arretaz egin dugu aurrera, arrakalen artean, Marconi pasabidera iritsi garen arte: ibilaldi osoko zatirik korapilatsuena daukagu aurrean. Etengabe-ko elur-jausiak dauzkan glaziar arriskutsua saihesteko, eskuinaldean kokaturiko harkaitzean gora egitea da asmoa. Eskalada erraza eginda (III) gaintzen da arroka, baina ur-jauzia sortu da paretaren erdian. Zertxobait

zaildu du horrek igarobidea; baina, sokarekin segurtatuta, erraz iragan dugu. Eskaladaren ostean, bazkaltzen ari garela, Stephan eta Timo agertu dira goialdetik; nekatuta baina pozik datoz: Cerro Torreren denboraldiko lehenigoera sinatu berri dute!

IZOTZ LAUTADA, BIZITZARIK GABEKO INGURUA

Lagunak agurtu eta glaziarrean gora abiatu gara, pitzaduretan arreta jarrita. Gure bizkarrean, Fitz Royren ipar-mendebaldeko aurpegia joan da agertzen, zorrotza alde horretatik ere. Inguruan, orratz gehiago ditu; gotorleku ederra da mendigunea iparraldetik ere. Pixkanaka, malda gutxituz joan den heinean, izotz-lautadan sartzen joan gara.

Orduak azkar pasa dira, eta babes bila desbideratu gara ezkerrean kokaturiko harri-multzorantz. Harkaitzetara zertxobait igo eta kanpatzeko moduko zonalde laua aurkitu dugu. Talaia horretatik, ikuskizuna oso berezia da: itsaso bare zuria gure azpian eta, atzealdean, tontor elurtuak. Horrelakoa imajinatzen dut Antartika; hotz handiagorekin, noski. Guri ere zero azpitik jaitsi zaigu tenperatura ilunabarrean, baina haize leuna dabil, eta ingurune ikusgarriari begira afaldu dugu.

Hurrengo goizean, lainotuta argitu da eguna. Erraketak jantzi eta elur-lautada bakar-tian sartu gara. Gu gara hemengo izaki bizidun bakarrak; ez dago bertan bizirik irauteko gai den animalia edo landarerik. Giro atsegina hau arrarokeria bat dela gogoratu dut, eta hotzikara sentitu dut bertako ekaitzak irudikatzean. Badaezpada, ez dagoen babesleku bila hasi naiz. Ingurura begira, ematen du naturak ezin duela onartu izaki bizidunen gabeziak sortzen duen geldotasuna eta, ondorioz, lastertu egin duela denbora geologikoa. Glaziarren etengabe-ko aurrerabideak soinu eta elur-jausiak sortzen ditu etengabe: pareta puska eroriko da orain, jela pusketa ondoren, edota egun gutxietan ur-jauzi berria sortuko da honman, berriz desagertzeko laster. Paisaiak normalean duen estatikotasuna alboratu eta bizidunen dinamismoa hartu duela mailegatuta dirudi.

ALDAREEN ZIRKUA

Lautadan lau orduz ibili eta gero, eguerdian iritsi gara Circo de los Altaresera. Izen horrek zerbait handia iradokitzen du, baina lainopean daude aldareak. Kanpalekua elurretan muntatu eta zakura sartu gara. Hemen, dena da grisa edo zuria; hotza da giroa. Eta inguru bortitz

horretatik abiatzen da Cerro Torreko biderik eskuragarriena.

Baina, ilunabarrean, desagertu egin dira hodeiak eta eguzki-izpiek epeltasuna ekarri dute zirkura: bete-betean agertu zaizkigu al-dare guztiak kanpaleku gainean: laranja tonua hartu dute, lehenik, paretek; gorrixka, ondoren. Hotzak ahaztu eta kanpora atera gara ikuskizunaz gozatzerara. Baina, eguzkia sartu denean, berriz itzuli dira tonu hotzak zirkura. Barrenak goxatuta, zakura sartu eta gu ere hurrengo goizera arte ezkatuta gara.

Eguzkia sartu denean, berriz itzuli dira tonu hotzak zirkura

Laugarren goizean, indartsu agertu da ekia, eta lautadan aurrera jarraitu dugu. Viedma glaziarrean sorreran pitzadurak hasi dira, eta sokaz lotu dugu elkar, badaezpada. Izotz-plakatik 49 glaziar sortzen dira, eta horietatik handien artean dago hankapean daukagun hau. Orain morrenan sartuta, geroxeago arrakalen artean galduta, mantso egin dugu aurrera. Arratsaldean, jela atzean utzi eta Ferrari izene-ko kanpamentuan geratu gara gaua igarotzerara.

PASO DEL VIENTO, HAIZERIK GABE

Biharamunean, aldapa izan dugu gosaltzeko, Paso del Viento lepora bidean. Izena izanetik etorriko da, ziur, baina ez da haize-zipitzik ere somatzen. Bertara iristean, lasai egin dugu haiketako paisaiari begira. Viedmarean sorrera bere zabaltasun osoan ikus daiteke eta, hegoalderantz, zeruertzean galtzen da izotz-lautada. Urrunean, beste glaziar kolosal baten sorrera somatzen da: Perito Moreno famatua.

Igarobide hau zeharkatuta, maldan behe-ra segi dugu. Izotz-lautada ez dugu gehiago ikusiko; glaziarrek, aldiz, begi-bistan izango ditugu oraindik: mendi-multzoaren hegoalde-tik sortzen direnak beherantz doan bailara estura okaztatzen dute jela, berau blokeatu eta ibilaldia zailduz. Kostata, baina heldu gara ibaira, zeinak abentura-eremua eta inguru segurua bereizten dituen; tirolinaz zeharkatu beharra dago. Bertatik, lehenengo zeharkatu bistaratu ditugu urrunean: han dago Laguna Toro kanpalekua, gaurko gure helmuga. Bizitza posible den ingurunean sartzen ari gara.

Eguraldia lagun oraindik, bide errazetik egin dugu azken etapa. "Atsedan-egun" aktibo hauen ostean, berriz bizikletak hartu eta bideari ekiteko ordua da: hurrengo geltokia, Ushuaia. Baina, hori, beste istorio bat da.

CHALTENeko Eskalatzaileak

Eskalada-bideak oso luzeak dira hemen, berrogei luzetik gorakoak sarritan. Ordu asko behar dira, beraz, paretan gora eta behera egiteko. Eguraldi oso aldakorra gehitzen badiogu horri, ondoriozta dezakegu arrisku objektiboak handiak direla beti. Ondorioz, non-stop igoerak dira lehenesten direnak: herritik atera, gerturatzea egin, eskalatu, rappelak egin eta buelta herrira.

Urteaharreko afarira gerturatu diren eskalatzaileetatik bi zaurituta jaitsi dira menditik: bati harri batek jo dio bizkarrean eta ezin mugituri dauka; besteari, berriz, pioleta bizkarrean sartu zaio eroriko batean, eta zulo ederra dauka saihetsetan. Ezer larririk ez oraingoan, baina urtero gertatzen da istripu txarren bat.

Afaltzen ari garen bitartean, egindako jarduerak kontatu dizkigute:

TIMO ETA STEPHAN AUSTRIARREN POINCENOT ORRATZEKO IGOERA: Arratsaldeko zortzietan irten ziren, oinez, Chaltenetik. Goizeko bostetan, horma zeharkatzen duen izotz-diagonal nagusiaren oinarrian zeuden. Han hasi zuten eskalada, eta arratsaldeko ordu bietan erdietsi zuten tontorra. Zortzietan, paretan basean ziren, eta goizeko bostetan herrian bueltan. Hogeita hamahiru orduko etengabeko jarduna.

TED ETA CLIFF ESTATUBATUARREN FITZ-ROYKO JARDUNA: Goizeko zortzietan atera ziren Chaltenetik, egun osoa oinez igaro eta paretaren oinarriko glaziarrean kanpatu zuten (ipar-mendebaldeko aurpegia aukeratu zuten, inguratze luzea zeukaten). Atsedean txiki bat eta, biharamunean, goizean goiz eskalada hasi eta ilundu arte aritu ziren lanean. Vivaca egin zuten horman, hurrengo goizean ton-

torrera iritsi eta behera -hogeita bost rappel segidan-. Kanpamentura iritsi, dena jaso eta herrira buelta. Berrogeita bi orduko jarduna eta bi atsedean txiki besterik ez.

Eguerdian pare batean, ibaiertzera joan gara yoga egitera eskalatzaileekin, eta han ezagutu dugu Colin Haley. Estatubatuar hau da inguru hauetako erreferente nagusia, ikaragarriko eskaladak dauzka sinaturik. Aurtengo denboraldirako dauzkan planak kontatu dizkigu: Alex Honnoldekin sokada osatuko omen du, besteak beste. Guk Chalten utzi eta bi astera etortzeko da Honnold; gure etxaldera, noski. Handik aste batzuetara, komunikabideen bitartez jakin dugu balentria itzelak egin dituela bikoteak.

Kuadrilla honekin egun batzuk igaro ostean, bi eskalatzaile-eskola ezberdin irudikatzen dituztela begitandu zait:

Marconi pasabidera iristen



BATETIK, ESTATUBATUAR GARAIKIDEEN ESKOLA LEGOKE. Eskaladarekiko jarrera axolagabe moduko bat saltzen dute, egiten dituzten jarduerak esfortzu eta aurrelan berezirik eskatuko ez baliete bezala. Despistatuak, ausartak, ezer seriotan hartzen ez dutenak; erreala ez den jarrera. Maskara bat da, benetan lanketa oso zorrotza egiten baitute –eskalada horietan ez dago beste aukerarik-. Alex Honnoldek saltzen duen irudia iruditzen zait jarrera horren erakusle nagusia. Pena, baina ez dugu baiez-tatzerik izan benetan nolako den Honnold, bi astegatik! Estatubatuarren artean jarrera hori da nagusi, Colin Haleyren salbuespenarekin; hurrengo eskolan sartuko nuke azken hori.

BESTETIK, ESKOLA ZAHARREKOAK DEITUKO NITUZKEENAK DAUDE. Timo eta Stephan austriarrak dira adibide nagusiak. Urte berria ospatzeko mementoan ere, burrunbaren erdian, Timo hurrengo eskalada aztertzen zebilela iruditu zait. Eskalatzeraz etorri dira hona eta

erabat zentratuak daude. Messner, Inurtegi eta antzekoak etortzen zaizkit gogora: behin eta berriz egoera aztertu eta dena ahalik eta kontrolatuen eduki nahian, ezusteari ahalik eta zirrikiturik txikiena uzten diotela.

Estatubatuarrak Timo zirikatzen dute, ea kableak non dituen galdezka, makina bat dela esanaz. Gure ibilaldian bikote austriarrarekin gurutzatu garenean, azalpenak eman dizkigute Cerro Torreko denboraldiko lehen eskaladaren gainean. Tontorreko izotz-perretxikoan tunela ireki behar omen da urtero, neguan estali egiten da eta. Timok hartu du ardura eta ia zortzi ordu pasa ditu, pioletarekin kolpeka, tunela irekitzen. Kableak eduki edo ez, makina bat da Timo.

Bi eskoletako kirolariek sinatu dituzte jardura ikaragarriak gu han egon garen bi asteetan. Baina austriarrek, hilabeteko egonaldian, lau eskalada bikain egin dituzte, tartean Cerro Torrera denboraldiko lehen igoera. Pastelaren ginga haientzat!

SEGURTASUN OHARRA

Ibilaldiko argazki eta deskribapenek bertako klimaren pertzepzio okerra sorle-zakete. Aipatu dugun moduan, eguraldia muturrekoa da inguru horietan. Hala ere, erabat ezberdinak dira orriotan deskribatzen ditugun bi joan-etorriak:

Lehenengo egin dugun trekkinga eta eremuak beste hainbat –orratzen ekialdetik doazena-, inongo arriskurik gabe egin litezke. Ekaitzak harrapatuz gero, bideak ongi markatuta daude, eta, ordu gutxitan, Chalteneko segurtasunean aurki zintezke.

Erabat ezberdina da egin dugun bigarren txangoa. Batetik, ia ibilaldi osoa glaziar eta izotz gainean egin beharra dago, eta esperientzia behar da pitzadura horien artean seguru ibiltzeko. Baina, hor, zerutik dator arriskua: izotz-lautadako ekaitzak beldurgarriak omen dira, eta minutu gutxitan iristen dira ozeanotik. Orduko berrehun kilometrorainoko haizeak eta elurra izan ohi dira normalean. Lautada zabal horretan ez dago ez babesleku ez eta orientatzeko erreferentziarik lainoa sartuz gero.

Urte asko daramatza Marcusek bertan, ordea, eta goitik behera ezagutzen ditu ingurua eta klima; bere gida eta ardurapean sartu gara izotz-lautadako abenturara. Bera arduratu da Marconi pausuko ibilbidea aukeratu eta hornitzeaz, glaziarra noiz zegoen arriskutsu erabaki eta denok sokan lotzeko agindua emateaz; eta, eguraldiak ezustekorik eman ez digun arren, etengabe zebilen zerura begira, eguraldi-aldaketaren lehen arrastoan handik segituan alde egiteko. Txarreneko, satellite-telefonoa eta GPSa ere prest zeuzkan motxilan.

Ez dut gomendatzen izotz-lautadako itzulua egitea zonaldea ongi ezagutzen duen gidarik gabe. Minutu gutxitan infernu bilaka liteke paradisia, bizitza arriskuan jartzearaino. Ezin du bertan inongo izaki bizidunek iraun, gogoratu.

Maria Mungia Del Pozo bidaidea eta biok, bizikletak beharrezko guztiarekin kargatu eta Hego Amerikara abiatu ginen 2015eko irailean. Mantso-mantso, kontinentea ezagutzen ari gara orduak, eta lezio ugari erakutsi dizkigu bideak, besteak beste, ametsak iparrorratz bikaina direla. Gure bizipenak biltzen dituen blog bat daukagu: www.suarenbila.wordpress.com

Ibilaldi hauek 2015eko abenduaren 28 eta 2016ko urtarrilaren 10a bitartean egin genituen.

